# 2021eko Urteko txostena

CÁMARABILBAO

# EDUKIAK

1 AURKEZPENA 3 or.
2 2021EKO BALANTZE KORPORATIBOA 5 or.
3 GOBERNU ORGANOAK 7 or.
4 PRESTAKUNTZA ARLOA 21 or.
5 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO HARREMANEN ARLOA NAZIOARTEKO EZARPENA 26 or.
6 ENPRESENTZAKO ZERBITZUAK 56 or.
7 MARKETINA ETA ERALDAKETA DIGITALA 61 or.
8 ADIMEN LEHIAKORRA 65 or.
9 ARLO KORPORATIBOA ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK 67 or.
10 BIZKAIKO 2021EKO ERRADIOGRAFIA EKONOMIKOA 78 or.

# 1 Aurkezpena





## JOSÉ ÁNGEL CORRES ABÁSOLO • CÁMARABILBAOKO PRESIDENTEA

2021eko maiatzaren 28an, Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Itsasketa Ganberak 135 urte bete zituen, eta Estatuko lehenengo ganbera izandakoak sortu zeneko helburuei eusten die oraindik.

Bide luze horretan, Ganberak zuzenean edo beste instituzio batzuekiko lankidetzapean sustatu ditu Bizkaiarentzat eta Euskadirentzat ekonomiaren, azpiegituren eta prestakuntzaren arloan oso garrantzitsuak izan diren proiektuak. Hona hemen garapen sozioekonomikoan izan duen ekarpenaren adibide adierazgarriak: aireportua, erakustazoka (gaur egungo BEC), Bilboko portua, Gordailu Frankoa, Bilbo-Behobia autopista, Petronorreko findegia, Bilbao Air sozietatea, Mercabilbao, Elkargi, Aparcabisa, Itsasmuseum, Merkataritza Eskola, Ingeniarien Goi Eskola, Hizkuntza Eskola Ofiziala, Sarrikoko Ekonomia Fakultatea, Euskoiker Fundazioa edo DigiPen Europe Bilbao.

Horrez guztiaz gain, badaude zuzenean garatu ditugun proiektuak eta, gaur egun, oraindik ere erakundearen parte direnak; esate baterako, Arbitraje eta Bitartekaritzako Gortea, Marketineko Unibertsitate Eskola, Hizkuntza Eskola, Kudeaketako graduondoko ikastaroak edo gure enpresak nazioartean ezartzeko Ganberako Esportazio Plana.

Ehun urtetik gorako ganbera gara, bai, tradizio luzekoa, baina horrek ez du esan nahi erakundea zaharkitua garenik, beti-beti gehiago begiratzen diegulako orainari eta etorkizunari iraganari baino. Aurkezten dugun txosten honetan, ageri-agerian geratzen da erakunde bizia, modernoa, eraginkorra eta dinamikoa garela eta Bizkaiko enpresen zein langileen premietara egokitzen jarraitzen dugula, nazioarteko ezarpena, prestakuntza, teknologia berriak zein berrikuntza sustatzeko eta kalitateko zerbitzu erabilgarriak emateko.

Enpresak eta ekonomia globala errealitate berrira egokitu eta bilakatu egin behar direnez, geuk ere egin beharko ditugu ahaleginak, pandemiaren eta agertzen ari diren fronte berrien ondorioz bizitako urte latz-latzen ostean. Bestetik, ahalegin horiek oso antz handia dute gure enpresak egiten ari direnekin.

Horretarako guztirako prest gaudela uste dugu, erakunde honetan lan egiten duten profesionalen esperientziari eta lan onari esker. Erronkak ditugu aurretik, baina geldituko ez ditugun proiektuak eta ideiak ere bai. Beti-beti, etengabeko hobekuntzaren irizpideari eusten diogu, eta enpresa-sektore guztiekin nahiz administrazio publikoekin lan egiteko prest dagoen eredua daukagu. Horrez gain, bizileku eta lanleku dugun ingurune sozialarekin ditugun inplikazioa eta konpromisoa hartzen ditu kontuan.

2



# 2021eko Balantze korporatiboa



## MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA • CÁMARABILBAOKO IDAZKARI NAGUSIA

Pandemiaren bilakaera eta horri aurre egiteko hartutako neurriak munduko egoera ekonomikoko protagonista handiak izan dira 2021ean. Halaber, honako hauxe ere ikusi dugu: oso digitalizazio handia, orain arte ezezaguna zen eztabaida, globalizazioaren kalteei zein onurei buruzko eztabaida, gobernantza hobeari buruzko azterketa (deszentralizazioa versus zentralizazioa edo murrizketak hartzea maila nahiz iraupena kolokan jarrita) edo Euskadiko, Estatuko eta Europako aurrekontuen ahaleginak (Next Generation funtsak). Azken batean, gorabeherez betetako urtea itxi dugu, eta, bertan, adierazle sozial zein ekonomiko guztiak egon dira aldatuta.

Hala ere, Cámarabilbaok egindako "Bizkaiko Egoera Ekonomikoari buruzko Txostenak" baieztatu egiten du irrikatutako susperraldiranzko ibilbidea abian dagoela. Besteak beste, ondasunen kanpoko merkataritza, erregistratutako langabezia eta kontratazioa, jarduera turistikoa edo enpresen zein langileen Gizarte Segurantzarako afiliazioa bezalako aldagaien bilakaerak egiaztatu egiten du argiuneak ikusten hasi garela. Txanponaren beste aldean, prezioen gaur egungo igoera daukagu, eta oso-oso kaltegarria izan daiteke familien zein enpresen lehiakortasunaren erosketa-ahalmenerako. Gainera, 2022. urtearen hasieran ustekabean agertu diren hodei beltz berriak ere hartu behar dira kontuan; Ukrainako gerra, esaterako.

Egindako azterketetatik eta Bizkaiko enpresen iritzietatik, ondorio moduan atera ahal izan dugu baikortasun eutsia dagoela eta enpresak hazten hasteko prest daudela. Aldi berean, antzeman egin dugu esportatzaileak, ekintzaileak, berritzaileak eta digitalizatuak direla abantaila handienaz abiatzen ari direnak. Hori dela eta, Cámarabilbaok zerbitzuak eta laguntasuna eskaintzen jarraituko du lau erronka horiek lortzeko.

Testuinguru honetan, ikaraldi etengabez betetako eta nahasi egiten gaituen ekonomia daukan munduan, gure etxeak 135 urte bete ditu. Egindako ibilbideari erreparatuta, berriro ekin diogu, baina lana eta arduraldia aitortu behar zaizkien pertsonen artean eragina izan duten aldaketak egin ditugu. Eskerrik asko horiei guztiei!

Era berean, aldaketa edo egokitzapen txikiak egin dira, administrazio publikoak agindutako programa berrien ondorioz hartutako konpromisoak sustatzeko eta konpromiso horietan eraginkorragoak izaten saiatzeko. Geure erakundean, aldaketa horiek egiten jarraituko dugu, ganbera moduan dugun irudia indartzeko, instituzioa gizartera are gehiago hurbiltzeko eta, horrela, Bizkaiaren onerako eta interes orokorrerako lan egiten jarraitu ahal izateko.

# 3

# Gobernu organoak



# Batzorde Betearazlea

José Ángel Corres Abásolo
**Presidentea**

José Ignacio Zudaire Arana
**1. presidenteordea**

Rafael Orbegozo Guzmán
**2. presidenteordea**

Carlos Gorria García-Peñuela
**Diruzaina**

Begoña Ayarza Gaztelu
**Bokala**

Alejandro Beitia Aldamiz-Echebarria
**Bokala**

Pedro Campo Iglesias
**Bokala**

Serafín Loroño Bilbao
**Bokala**

Rafael de la Peña Bengoechea
**Bokala**

Tamara Yagüe Martínez
**Bokala**

José Antonio Yela Lizarralde
**Bokala**

Mikel Arieta-araunabeña Bustinza
**Idazkari nagusia**

# Osoko bilkura

## Merkataritza eta Ostalaritza Atala

| | |
|---|---|
| Alberto Gutiérrez Uriarte | **ARANZAZU** |
| Luis Rodríguez Martín | **BIDAGIN** |
| Enrique Casado Montalbán | **EL CORTE INGLÉS** |
| Eugenio Sayas Castrillo | **EUGENIO SAYAS CASTRILLO** |
| Guillermo de Lecea Gravalos | **GUILLERMO DE LECEA GRAVALOS** |
| Héctor Sánchez Zarraga | **ISLA DE LOTO** |
| José Ramón Martínez Poyo | **JOSÉ RAMÓN MARTÍNEZ POYO** |
| Antonio Mª Monasterio Hernández | **MIL-TEK NORTE** |
| Miren Itxaso Zelaia Zorrilla | **MIREN ITXASO ZELAIA ZORRILLA** |
| Alejandro Beitia Aldamiz-Echebarria | **RESTAURANTE LA ESCUELA** |

| | |
|---|---|
| Leire Arteta Ocerin | **APYASA** |
| José Miguel Ugarriza Echevarri | **BIOTERMIAK ZEBERIO 2009** |
| Santiago Babío Martínez de Osaba | **CABLES Y ALAMBRES ESPECIALES** |
| Alberto Marín Sánchez | **CEMENTOS LEMONA** |
| Francisco de Borja Vicinay Pérez | **CEMVI CATENA ELEVACIÓN MANUTENCIÓN VICINAY** |
| Arantza Rouco Porras | **COIFURE MAEN-2 2005** |
| Rafael de la Peña Bengoechea | **GUIVISA** |
| Guillermo Buces Martínez | **IMPRENTA GARCINUÑO** |
| Eva Mª Colino Vela | **INGUKON** |
| Begoña Bravo Hernando | **INSTALACIONES ELÉCTRICAS SCORPIO** |
| José Antonio Taramona Campo | **LOINTEK HEAVY INDUSTRIES** |
| José Ramírez Jiménez | **NEVADA FLORIDA BLANCA** |
| Izaskun Astondoa Sarria | **PIROTECNIA ASTONDOA** |
| Tomás Olano Uscola | **SIDENOR ACEROS ESPECIALES** |
| Jorge Gómez Díez | **TECMAN FACILITY SERVICES** |
| Tamara Yagüe Martínez | **TECUNI** |
| Aitor Lago Moro | **TORNILLERÍA LANDALUCE** |



Javier Hurtado
Merkataritzako sailburuak
Merkataritza, Ostalaritza
eta Irudi Pertsonaleko
Batzordean parte hartu du.
2021-06-10

## Zerbitzu Atala

| | |
|---|---|
| María José Tato Mera | **AFIANZA SERVICIOS JURÍDICOS** |
| Carlos Real de Asua Eulate | **ALKORA EBS CORREDURÍA DE SEGUROS** |
| José Ignacio Villanueva Ortueta | **BOSLAN INGENIERÍA Y CONSULTORÍA** |
| Idoia Olabarri Pereda | **CONSTRUCCIONES OLABARRI** |
| Joseba Inchaurraga Echebarria | **ENTELGY IBAI** |
| Francisco Javier Acha Goti | **GRUPO ACHA MOVILIDAD-LUJUA TXORIERRI, MUNGIALDEA** |
| Begoña Ayarza Gaztelu | **ITESA PRODUCCIONES** |
| Xabier Solaeche Prieto | **KUTXABANK** |
| Joseba Edorta Echebarria Garate | **SUTXOIN** |
| Miguel Aguirre Arrarte | **TRANSPORTES DEL PUERTO DE SANTURTZI** |

## Nabigazio Atala

| | |
|---|---|
| Juan Arana Uriarte | **ASTILLEROS DE MURUETA** |
| Francisco Garaygordobil Amorrortu | **FLOTANOR** |
| Gonzalo Gacía Miñaur Rotaeche | **GONZALO GARCÍA MIÑAUR ROTAECHE** |



Next Generation
Jardunaldia. 2021-3-24



Ekonomia zirkularrerantz.
2021-05-18

# Osoko bilkura

## Borondatezko ekarpen handieneko enpresak

| | |
|---|---|
| Juan Andrés Díez de Ulzurrun Moreno | **BAHÍA DE BIZKAIA GAS** |
| Carlos Gorria García-Peñuela | **BBVA** |
| Juan Aguirre Aguirrezabal | **BERGÉ Y COMPAÑÍA** |
| Roberto Zarate Amigorena | **BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA** |
| Alejandro Aznar Sáinz | **COMPAÑÍA DE REMOLCADORES IBAIZABAL** |
| Gerardo Toro Arrúe | **CONSIGNACIONES TORO Y BETOLAZA** |
| José Antonio Yela Lizarralde | **EROSKI** |
| José Ángel Corres Abásolo | **GRUPO CORPORATIVO GFI NORTE** |
| Rafael Orbegozo Guzmán | **IBERDROLA** |
| Serafín Loroño Bilbao | **INGENIERÍA Y TÉCNICAS DE MONTAJE LOINTEK** |
| José Ignacio Zudaire Arana | **PETRÓLEOS DEL NORTE** |

# Osoko bilkura

## Bizkaiko patronala den CEBEKek proposatuta aukeratutako bokalak



José Ángel Corres, Teresa Laespada - **Smart Cities**. 2021-05-05

Javier Aguirregabiria González de Echavarri

Pedro Campo Iglesias

Julián Gómez Huerta

Covadonga Herrero Sedano

Nuria Lekue Saratxo

José Luis López Gil

Gema Martínez Mendoza

Carolina Pérez Toledo

## Bokal aholkulariak

José Ramón Alcorta Aranguren

Luis Ramón Arrieta Durana

Ricardo Barkala Zumelzu

Julia Diéguez Pérez

Iván Grande Merino

Antonio Garamendi Lecanda

Miguel Ángel García Montoya

Joseba Gondra Lodosa

Mikel Huizi Leiza

Xabier Irusta Sáinz

Eladio Orive Fernández

Juan Mª Sáenz de Buruaga Renobales

Pedro Sáinz Santos

Hubert von Heeren



Cámarabilbao eta Petronor, topaketa Portugalgo enbaxadorearekin. 2021-6-23

# Beste erakunde batzuetako ordezkaritza

## GANBERAKO SOZIETATEAK ETA ERAKUNDEAK

| Ordezkariak | Erakundeak |
| --- | --- |
| Batzorde Betearazlea | **BILBAO GANBERA GESTIÓN** |
| José Ángel Corres Abásolo<br>Gonzalo García-Miñaur Rotaeche<br>Mikel Arieta-araunabeña Bustinza | **BILBOKO AIREPORTUA SUSTATZEKO SOZIETATEA (BGG, %75)** |

## BILBOKO MERKATARITZA GANBERAKO ARBITRAJE GORTEA

| Ordezkariak | Erakundeak |
| --- | --- |
| José Ángel Corres Abásolo<br>Patxi Acha Goti<br>Joseba Edorta Echebarria Garate<br>Idoia Olabarri Pereda<br>Jorge Gómez Díez<br>Pedro Campo Iglesias<br>Eva Mª Colino Vela<br>María Tato Mera<br>Mª Victoria Lázaro Ortega | **Arbitraje Kontseilu Gorena** |
| Patxi Acha Goti<br>Joseba Edorta Echebarria Garate<br>Idoia Olabarri Pereda<br>Jorge Gómez Díez<br>Mª Victoria Lázaro Ortega | **Lantalde Iraunkorra** |
| Alejandro Beitia Aldamiz-Echebarria<br>María Tato Mera<br>Mª Victoria Lázaro Ortega | **COMPLIANCE LANTALDEA** |

# Beste erakunde batzuetako ordezkaritza

## PARTAIDETZAPEKO SOZIETATEAK

| Ordezkariak | Erakundeak |
| --- | --- |
| José Ignacio Zudaire Arana<br>Joseba Inchaurraga Ecchebarria | **BILBAO EXHIBITION CENTRE** |
| Mikel Arieta-araunabeña Bustinza | **HUBPYME** |
| Mikel Arieta-araunabeña Bustinza | **CAMERFIRMA** |
| Gonzalo García Miñaur-Rotaeche<br>Tomás Olano Uscola | **DEPÓSITO FRANCO DE BILBAO**<br>**Partzuergoko Osoko Bilkura** |
| Gonzalo García Miñaur Rotaeche | **Batzorde Betearazlea** |
| José Ángel Corres Abásolo | **EUSKOIKER FUNDAZIOA** |
| Mikel Arieta-araunabeña Bustinza | **METAPOSTA** |
| Rafael Orbegozo Guzmán | **BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA** |
| José Ángel Corres Abásolo<br>Mikel Arieta-araunabeña Bustinza | **SDAD. PROMOCIÓN VILLAFRÍA PUERTO SECO (jarduerarik gabe)** |

# Beste erakunde batzuetako ordezkaritza

## ENTIDADES CON REPRESENTACIÓN

| Ordezkariak | Erakundeak |
|---|---|
| Juan Aguirre Aguirrezabal<br>Alejandro Aznar Sáinz | **BILBOKO PORTUKO AGINTARITZA** |
| Miguel Aguirre Arrarte | **APARKABISA** |
| Mª Paz Irastorza Egusquiza | **BILBAO CONVENTION BUREAU** |
| Mª Paz Irastorza Egusquiza | **BILBAO DENDAK** |
| Mª Paz Irastorza Egusquiza | **EUSKADIKO MERKATARITZAKO AHOLKULARITZA BATZORDEA** |
| Mª Paz Irastorza Egusquiza | **EUSKADIKO KONTSUMOKO AHOLKULARITZA BATZORDEA** |
| Mikel Arieta-araunabeña Bustinza | **BILBOKO HIRIBILDUKO GIZARTE KONTSEILUA** |
| Cámaras Vascas<br>Izaskun Astondoa Sarria<br>José Miguel Ugarriza Echevarri | **EUSKAL EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA** |
| José Ángel Corres Abásolo<br>Mikel Arieta-araunabeña Bustinza | **NAZIOARTEKO EZARPENERAKO EUSKAL PARTZUERGOA** |
| Alberto Marín Sánchez | **ELKARGI, SGR** |
| José Ángel Corres Abásolo | **BILBOKO OSTALARITZAKO GOI ESKOLA** |
| Mikel Arieta-araunabeña Bustinza<br>Iñigo Lamana Trincado | **EUSKALIT** |
| Juan Arana Uriarte | **EUSKAL ITSAS FOROA** |
| Presidente de Eusko Ganberak | **INNOBASQUE** |
| Miguel Aguirre Arrarte | **EUSKADIKO GARRAIOKO ARBITRAJE BATZARRA** |
| Pedro Campo Iglesias<br>Julián Gómez Huerta<br>Mª Paz Irastorza Egusquiza | **KONTSUMOKO ARBITRAJE BATZARRAK** |
| Joseba Edorta Echebarria Garate | **BIZKAIKO NAHITAEZKO DESJABETZARAKO LURRALDE BATZARRA** |
| Eusko Ganberak | **EUSKADIKO TURISMO MAHAIA** |
| Presidente de Eusko Ganberak | **ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, SPRI** |
| Mikel Arieta-araunabeña Bustinza | **UNIPORT BILBAO** |

# Beste erakunde batzuetako ordezkaritza

## MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA IRUDI PERTSONALEKO AHOLKULARITZA BATZORDEA

José Antonio Yela Lizarralde
**Presidentea**

Mª Paz Irastorza Egusquiza
**Idazkaria**

- Pedro Campo Iglesias
- Julián Gómez Huerta
- Alberto Gutiérrez Uriarte
- Luis Rodríguez Martín
- Arantza Rouco Porras
- Enrique Casado Montalbán
- Héctor Sánchez Zarraga
- Julia Diéguez Pérez
- José Ramón Martínez Poyo
- Miren Itxaso Zelaia Zorrilla

## FAMILIAKO ENPRESAREN AHOLKULARITZA BATZORDEA

Alejandro Beitia Aldamiz-Echebarria
**Presidentea**

Luis Siles Ojeda
**Idazkaria**

- Juan Arana Uriarte
- Leire Arteta Ocerin
- Izaskun Astondoa Sarria
- Julián Gómez Díez
- Nuria Lekue Saratxo
- Antonio Monasterio Hernández
- Idoia Olabarri Pereda
- Luis Rodríguez Martín
- Pedro Sáinz Santos
- Gerardo Toro Arrúe
- Francisco de Borja Vicinay Pérez

## ERALDAKETA DIGITALERAKO BATZORDEA

Rafael Orbegozo Guzmán
**Presidentea**

Beatriz Santo Tomás
**Idazkaria**

- Mikel Arieta-araunabeña Bustinza
- Yago Barandiaran
- Jon Barrena
- José Ramón Castro
- Covadonga Herrero Sedano
- Galo Oleaga Alday
- Jokin Ruiz Postigo
- Amaia Sánchez
- Beatriz Santo Tomás
- Xabier Solaeche Prieto
- Iñaki Villanueva Ortueta
- José Antonio Yela Lizarralde

# Beste erakunde batzuetako ordezkaritza

## BERDINTASUNERAKO BATZORDEA

Begoña Ayarza Gaztelu
**Presidentea**

Mª Victoria Lázaro Ortega
**Idazkaria**

- Juan Arana Uriarte
- Mikel Arieta-araunabeña Bustinza
- Izaskun Astondoa Sarria
- Mª Begoña Bravo Hernando
- Julia Diéguez Pérez
- Covadonga Herrero Sedano
- Gema Martínez Mendoza
- Antonio Mª Monasterio Hernández
- Rafael Orbegozo Guzmán
- Carolina Pérez Toledo
- María José Tato Mera
- Tamara Yagüe Martínez

## COMITÉ DE COMPLIANCE

Alejandro Beitia Aldamiz Echebarria
**Presidentea**

Mª Victoria Lázaro Ortega
**Idazkaria**

- María Tato Mera

## INGURUMEN ETA JASANGARRITASUN BATZORDEA

José Ignacio Zudaire Arana
**Presidentea**

Mikel Arieta-araunabeña Bustinza
**Idazkaria**

- Luis Ramón Arrieta Durana
- Izaskun Astondoa Sarria
- Julia Diéguez Pérez
- Joseba Edorta Echebarria Garate
- Iván Grande Merino
- Francisco Garaygordobil Amorrortu
- Jorge Gómez Huerta
- Mikel Huizi Leiza
- Nuria Lekue Saratxo
- Alberto Marín Sánchez
- Antonio Monasterio Hernández
- Rafael Orbegozo Guzmán
- José Miguel Ugarriza Echevarri
- Tamara Yagüe Martínez
- Roberto Zarate Amigorena

# Beste erakunde batzuetako ordezkaritza

## ARBITRAJE GORTEKO KONTSEILU GORENA

José Ángel Corres Abásolo
**Presidentea**

Francisco Javier Acha Goti
**Presidenteordea**

Diego Mª Granados Asensio
**Presidenteordea**

Mª Victoria Lázaro Ortega
**Idazkaria**

- Francisco Javier Chocarro San Marín
- Luciano Mª Azpiazu Canivell
- Gema Celdrán Canto
- Eva Mª Colino Vela
- Joseba Edorta Echebarria Garate
- Santiago Eraña Alegría
- Carlos Fuentenebro Zabala
- Jorge Gómez Díez
- Idoia Olabarri Pereda
- Iñaki Ruiz Manzano
- Mª José Tato Mera
- Gema Tomás martínez

## ARBITRAJE BATZORDE IRAUNKORRA

Vicente del Arenal Otero
**Presidentea**

Javier Acha Goti
Cristina Górgolas Medel
**Presidenteordeak**

Mª Victoria Lázaro Ortega
**Idazkaria**

- Joseba Edorta Echebarria Garate
- Jorge Gómez Díez
- Ramón Lasagabaster Tobalina
- Idoia Olabarri Pereda
- Antonio Tena Núñez

## BILBOKO KONTSULAK

José Ángel Corres Abásolo
**Priorea**

- Joaquín Almunia Amann
- Juan Manuel Arana Arechabala
- Vicente Mª del Arenal Otero
- Ibon Areso Mendiguren
- José Mª Arriola Arana
- Miren Arzalluz Loroño
- Alejandro Aznar Sainz
- Jon Imanol Azua Mendia
- José Ignacio Berroeta Echevarria
- Alex Cruz
- Ignacio Mª Echeberria Monteberria
- Mario Fernández Pelaz
- Antonio Garamendi Lecanda
- José Antonio Garrido Martínez
- Frank O. Gehry
- Xabier de Irala Estévez
- Eneko Landaburu Illarramendi
- José Ignacio López de Arriortua
- Paloma O`Shea Artiñano
- Ignacio Sánchez Galán
- Jorge Sendagorta Gomendio
- Pedro Luis Uriarte Santamaría
- Juan Ignacio Vidarte Fernández
- Miguel Zugaza Miranda

# Jardunaldi eta topaketa instituzionalak



Jardunaldia Paraguaiko ministroarekin. 2021-12-2




ETE-entzako zibersegurtasuna. 2021-9-29



Jardunaldia Hego Koreako enbaxadorearekin. 2021-9-28




TicketBAI Jardunaldia, Ganbera- Waters Kluver. 2021-05-26

# Jardunaldi eta topaketa instituzionalak




Retail Digital Sarien banaketa. 2021



ESG helburuen garrantzia. 2021-6-8




Eusko Ganberen Eraldaketa Digitalerako Bulegoen aurkezpena. 2021-7-9



Bizkaia-ABEko Enpresarien XI. Foroa. 2021-11-18

4

# Prestakuntza arloa

2020an, goitik beherako aldaketak egin behar izan ziren COVID-19aren pandemiaren ondorioz, eta, horren ostean, 2021eko ekitaldiak murrizketen eraginpean jarraitu zuen.

Ikasgeletara itzultzerik bazegoen ere, jende-kopurua murriztuta zegoenez eta segurtasun-distantziari eutsi behar zitzaionez, jarduera osoa egon zen baldintzatuta.

Edonola ere, “ikasgela hibridoaren” ezarpenari eta beste tresna teknologiko batzuei esker, ikasleek jarduera akademikoa garatzen jarraitu zuten, isolamendu-uneetan ere bai.

Egiaztatu egin da prestakuntza errazteko asmoz abian jarritako ikaskuntza eta ekimen horiek erabilgarriak direla etorkizunari begira, murrizketak dauden ala ez kontuan hartu gabe.

# PRESTAKUNTZA ARLOA

Jarduera-lerro honek profesionalak ditu helburu, kudeaketan dago oinarrituta eta eraginpean egon da berriro.

Programak online formatuan edo hibridoan egiten jarraitu dugunez, parte-hartzaileek aurrez aurreko partaidetzaren edo birtualaren artean hautatzeko aukera izan dute.

Online programen artean, nabarmendu egin behar da "Online Ikastaro Espezializatuak (CEO)" sustatu ditugula ESIC Business&Marketing Schoolen laguntzaz, eta guzti-guztiek trebetasun digitalak dituzte helburu.

Era berean, formatu hibridoan eutsi zaie nazioarteko ezarpenaren arloko workshopei.

Mondragon Unibertsitatearen laguntzaz, PMP ziurtagiria lortzea helburu duen Project Managementeko prestakuntzari eman zaio jarraipena.

Ekitaldi honetako berritasun moduan, Data Scientist Bootcamp jarri zen abian. Adimen artifizialaren arloan oso praktikoa den prestakuntza-programa da, eta ikasleak trebatzen ditu Machine Learningeko zein DeepLearningeko tresna ezarrienen erabileran.

Ekitaldi honetan, Cámarabilbaok berriro ekin zion Eusko Jaurlaritzak sustatutako Global Training beketako kudeaketa eta prestakuntza proiektuari, Euskal Autonomia Erkidegoko beste merkataritza-ganberen laguntzaz, 50 parte-hartzaile baino gehiago prestatzeko.

## ENPRESEN PRESTAKUNTZA





# PRESTAKUNTZA ARLOA

## GRADUONDOKOA

2020-2021eko ikasturtean, **zortzi programa** hasi ziren, eta haietako zazpi master-formatukoak izan ziren, Executive MBA barne. Guztira, 400 ikastordu baino gehiago izan dira. Bestea, ordea, Goi Programa izan da, eta iraupen laburragoa izan du.

**Sei programa** ESIC Business & Marketing Schoolekiko aliantzaren emaitza izan dira. Logistika Integraleko eta Erosketetako Executive Masterra, ordea, Mondragon Unibertsitatearen eta ICIL Fundazioaren laguntzaz garatzen da.

Azkenik, **Zerga Aholkularitzako Masterra** garatzen da administrazio publikoetatik edo kontsultoretzaren eta aholkularitzaren mundutik datozen gure inguruko profesionalen talde bikainaren partaidetzaren bidez.




**ESIC Business&Marketing Schoolen laguntzaz**

- Executive - MBA
- Marketin Zuzendaritzako eta Merkataritza Kudeaketako Masterra - GESCO
- Zuzendaritza Finantzarioko Masterra - MDF
- International Trade & Businesseko Masterra - MITB
- Marketin Digitaleko Masterra - MMD
- Salmenten Zuzendaritzako Goi Programa - PSDV

**Mondragon Unibertsitatearen eta ICIL Fundazioaren laguntzaz**

- Logistika Integraleko eta Erosketetako Executive Masterra

- Zerga Aholkularitzako Masterra - MAF

Graduondoko ikasleek enplegurako laguntasun eta aholkularitza zerbitzua dute eskuragarri, Lanbide Garapenerako Unitatearen bidez. 2021ean, praktiken 100 eskaintza baino gehiago kudeatu ziren, eta 200 lan-eskaintza baino gehiago argitaratu ziren.

## HIZKUNTZA ESKOLA

Hizkuntzetako prestakuntza pandemiaren eragin berezipean egon da berriro, seguruenik, oro har, jarduera osagarritzat hartzen delako eta, hain ingurune nahasian, ezinbestekoa ez delako.




Nolanahi ere, prestakuntza-ekintzen ohiko modalitate guztiak eskaintzen jarraitu dugu, helduentzat nahiz juniorren taldearentzat (16 urtetik beherakoak).

2020-2021eko ikasturteari begira, matrikulaziorako lehentasunezko baldintzak ezarri ziren, eta aurreko ikasturtean sortu ziren aurrez aurreko saioak bertan behera utzi zirenean, antzinako ikasleen leialtasunaren sari moduan.

Ez zen atzerriko egonaldietako programetarako deialdirik egin, ziurgabetasunagatik eta nazioarteko mugikortasunerako murrizketengatik.

Aitzitik, Cambridge ESOLeko zentro aztertzaile moduan, ohi bezala garatu da jarduera.

Era berean, "in company" prestakuntzak jarduera eduki du, eta online modalitatea orokortu da.

## CÁMARABILBAO UNIVERSITY BUSINESS SCHOOL

Cámarabilbao University Business Schoolek, Euskal Herriko Unibertsitatera atxikitako zentro ofizial moduan, **Enpresen Kudeaketako eta Marketineko Gradua** eskaintzen du.

CÁMARABILBAO UNIVERSITY BUSINESS SCHOOL




Gradu honek honako hauxe du ezaugarri bereizgarri: ikuspegi bikoitza edukitzea: orotarikoa, **Enpresen Kudeaketan**, eta, **espezialista, Marketinean**; atzerriko bi hizkuntza sartzea; erabat praktikoa den orientazioa; enpresek eskatutako balioak eta trebetasunak sustatzen dituen estiloa; eta oso-oso nazioartekoa den orientazioa.

2018an eguneratutako Ikasketa Planean, derrigorrean egin behar dira **enpresetako praktikak**, eta, horri esker, ikasleek lehenengo esperientzia profesionala dute.

Ikasleak Alemaniako, Frantziako, Britainia Handiko, Holandako, Irlandako eta Finlandiako beste unibertsitate-zentro batzuekin trukatzeko nazioarteko mugikortasunerako programak zentro eta herrialde bakoitzeko baldintzatzaileetara egokitu behar izan zirenez, parte-hartzaileen kopurua ohikoa baino txikiagoa izan zen.

Ikasketadunak laneratzeko prozesua nahikoa ona da oraindik.

Unibertsitateko agintariek ikasgeletako jende-kopuruaren murrizketak kendu bazituzten ere, zentro honek, irakasleei zein ikasleei galdetutakoan, lauhilekoa amaitu arte ez aldatzea erabaki zuen.

5

# Administrazio Publikoekiko Harremanen Arloa

# Nazioarteko Ezarpena



## Merkataritzako Misioak

2021ean, COVIDa dela eta, merkataritzako misioak formatu birtualean egin behar izan dira, ezinezkoa izan delako bidaiatzea.

M.C. TXILE (uztailak 5-12)

5 enpresa

BILBOKO GANBERA

## Nekazaritzako Elikagaigintza Sustatzeko Azokak




SIRHA_Frantzia
(Lyon, irailak 23-27)

5 enpresa



ANUGA_Alemania
(Kolonia, urriak 9-13)

9 enpresa

# NAZIOARTEKO EZARPENA

## DIAGNOSTIKOAK

**Ahalmen esportatzailea**

**29 enpresa**

**Merkatuen dibertsifikazioa/ Sendotasuna**

**37 enpresa**

**Ibilbide-orria/Tutoretza**

**8 enpresa**

## PROFEX

Euskal enpresen nazioarteko ezarpena handitzea du helburu. Horretarako, enpresei esportazio-saila sortzen laguntzen die lanaldi mugatuko esportazio-sustatzailearen bidez, eta nazioarteko merkataritzarako plana egiten laguntzen die.

**22 enpresa**

## XPANDE DIGITAL

Nazioarteko merkatuetarako posizionamendu digitala. Programak marketin digitalerako estrategiak garatzen ditu, helburu dituzten herrialdeetako online posizioaren bidez enpresen nazioarteko estrategiak indartzeko.

**14 enpresa**

## MARKETPLACES

Kanal hau honako honexetarako erabiltzea da xedea: ETE baten salmenten irismen geografikoa handitzea eta, horrela, ustezko bezero gehiagorengana iristea. Programan, gaur egungo Marketplaceen eskaintza aztertzen da produktuen merkatuaren zein tipologiaren arabera, plataforma aukeratzen da eta kanalaren estrategia garatzen da, ezarpen arrakastatsua lortzeko.

**21 enpresa**

## BIZKAIEXT

Aholkularitzarako eta informaziorako zerbitzua da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Ganberak garatzen dute elkarrekin, enpresei esportazio-jardueran edo nazioarteko ezarpenerako ekintzetan laguntzeko.

**312 kontsulta**

## JARDUNALDIAK ETA MINTEGIAK



**Webinarra**
BIZKAIKO ENPRESAK NAZIOARTEAN EZARTZEKO LAGUNTZAK ETA ZERBITZUAK
(apirilak 10)
35 enpresa

## ESPERIENTZIA TAILERRAK

**Webinarra**
ADUANAK ETA ADUANETAKO IZAPIDEAK
(uztailak 8)
65 enpresa

**Webinarra**
ESPORTAZIOKO PREZIOAK. KASU PRAKTIKOAREN AZTERKETAK
(ekainak 30)
35 enpresa



**Webinarra**
ESPORTAZIORAKO KREDITU ASEGURUA
(urriak 5)
28 enpresa

## ESPORTAZIOKO ESKAINTZA ANTZEMATEA

**Tailerra**
NOLA ESPORTATU ZEURE PRODUKTUAK: ESTRATEGIA, TRESNAK ETA HASTEKO MERKATUAK
(apirilak 23)
9 enpresa

**Tailerra**
ZERBITZUAK ESPORTATZEA: MERKATURAKETA, BRANDINGA ETA BERRIAK ESKURATZEKO TRESNAK
(maiatzak 21)
11 enpresa

**Tailerra**
ZERBITZUAK ESPORTATZEA: MERKATURAKETA, BRANDINGA ETA BERRIAK ESKURATZEKO TRESNAK
(urriak 22)
10 enpresa



# NAZIOARTEKO EZARPENA

## ENTERPRISE EUROPE NETWORK

Enterprise Europe Network Europako ETE-ei berrikuntzarako eta lehiakortasunerako ahaleginetan laguntzeko tresna nagusietakoa da. **ETE-ei berrikuntzan eta nazioarteko ezarpenean laguntzeko sare handiena da.**

**47** aukera Bizkaiko enpresentzat, bazkide/laguntzaile/harreman interesgarria lortzeko; eta bana-banan bidali dira.

**30** bilera egin dituzte Bizkaiko enpresek, eta zenbait sektoretako enpresen topaketak antolatzeko laguntza eman da.

**18** enpresa bizkaitarrek kontsulta europarretan parte hartu dute, ekimen europarrei, premiei buruz zer uste duten adierazteko.

**41** enpresa bizkaitarrek banakako aholkularitza eta informazioa jaso dituzte, merkatuetara iristeko.

## 2021EKO BARRIXE

**Barrixe – Bizkaiko Berrikuntzaren Behatokiak** enpresa bizkaitarren berrikuntzari eta urteen joan-etorrian duten bilakaerari buruzko informazioa ematea eta aztertzea du helburu.



## BARRIXE 2021 NORABIDEA AZTERLANA




**1837** — ENPRESA INKESTATU

**4/10** — 100 langile baino gutxiago dituzten hamar enpresa bizkaitarretatik lauk ekimen berritzaileak garatu zituzten 2020an.

**%78,8** — Erakundeen %78,8k arrakastatzat jotzen dute berritzeko hartutako erabakia, horren bidez kalitate handiagoa lortu dutelako (%87,3), fakturazioa gehitu dutelako (%84,5) eta laneko giroa zein emankortasuna hobetu dituztelako (%83,0)

**%30,2** — Bizkaiko Berrikuntza Indizeak inkesta hau egiteko aukera ematen du, eta enpresetako berrikuntza-jardueraren sistematizazio-maila neurtzen du. Indize horren arabera, enpresen %30,2ren berrikuntza-maila handia edo oso handia da.

**%30,8** — 2020an, Bizkaiko enpresen %30,8k lankidetza eskaini dute beste konpainia batzuekin garatutako proiektu bateratuetan, lehiakorragoak izateko.

**%57,7** — Bizkaiko enpresa esportatzaileen %57,7k baieztatu egiten dute berrikuntzaren arloko nolabaiteko jarduera edo ekimena egin dutela 2020an.

**BARRIXE 2021** **4.0 INDUSTRIA**

Bizkaiko ekoizpen-enpresetan 4.0 Industriako teknologiak zer mailatan dauden ezarrita jakin nahian, horri buruzko gaiak jorratzen dira 2021eko Norabidea txostenean, Bizkaiko erakundeetan zer teknologia diren nagusi eta bertan zer onura izan dituzten antzeman ahal izateko.



**1/4**

Ekoizpen-industriaren sektorekoak diren **4 enpresatatik 1ek** 4.0 Industria deskribatzen duen teknologiaren bat erabili du lan egiteko orduan.

Lantegiko datuak, eragiketa-prozesuak, balio-katea eta sailak honako hauexen bidez integratzeko teknologiak dira erabilienak: softwarea (%15,7), 3Dko simulazioak (%11,7) eta Cloud computinga (%11,1).

4.0 Industriaren ezarpenaren onurei dagokienez, kalitatearekin (%76,5) eta informazioarekin (%69,5) lotutako alderdiak dira aipatuenak.

## BARRIXE 2021

### BIZKAIKO KANPOKO MERKATARITZA PRODUKTUEN MAILA TEKNOLOGIKOAREN ARABERA



**1** — TXOSTEN

**326 milioi** — 2020an, maila teknologiko handikotzat jotako produktuen esportazio bizkaitarrak 326,025 milioi eurokoak izan ziren, hau da, 2019an baino %9,5 txikiagoak.

**309 milioi** — Produktu horien inportazioak 309,4 milioikoak izan zirenez, %22,3 jaitsi ziren 2019. urtearen aldean.

**%68,2 ABE / %54,1 EB** — Esportazioen %68,2k eta %54,1ek ABE eta Erresuma Batua dituzte helmuga, hurrenez hurren.

## BARRIXE 2021 | PATENTEEI ETA MARKEI BURUZKO TXOSTENA

**2** TXOSTEN, Bizkaian egindako patente nazionalen, diseinu industrialen, erabilgarritasun-ereduen eta marken eskabideen kopuruaren berri emateko.

**30** eskabide patente nazionaletarako

**17** eskabide diseinu industrialetarako

**956** eskabide marketarako

**56** eskabide erabilgarritasun-ereduetarako

### BABESTU: JABETZA INDUSTRIALARI BURUZKO AZTERLANA

Txosten berria da. Bertan, EAEko eta Bizkaiko jabetza industrialaren beste adierazle batzuk ere nabarmentzen dira; esate baterako, jabetza industrialarekin lotutako emakidak, indarrean daudenak, nork eskatu dituen, zer eremu geografikok duen asmakizun-jardueraren ratio handiena edo zer sektore teknikotakoak diren jabetza industrialaren inguruan egiten ari diren erregistroak.

Azaltzen diren datuak OEPMk 2019. urteari buruz eskainitakoak dira, eta honako hauexek nabarmentzen dira, besteak beste:

**57** Euskadin, patente nazionalen 57 emakida egin ziren.

**98** rabilgarritasun-ereduen 98 emakida egin ziren.

%58 ENPRESAK | %48 PARTIKULARRAK

**35** Era berean, diseinu industrialen emakidak jaitsi egin direnez, 35 izan direlako guztira, 2018an baino zazpi gutxiago daude

**1734** Marka nazionalen emakidek gora egin dute 2019an, 1.734 izan direlako guztira

## HAZINNOVA 2021

**CÁMARABILBAOK ERAGILE MODUAN PARTE HARTZEN DU SPRIK ETA INNOBASQUEK BULTZATUTAKO PROGRAMA HONETAN.**

Cámarabilbaok programan duen zeregina eragilearena da. Hori dela eta, enpresekin jartzen da harremanetan, eta enpresaren eskura dago prozesu osoan, premiak zehazteko eta berrikuntzarako proiektua erraz, arin zein banan-banan ezartzeko. Horrela, enpresa **Hazinnova** programako onuraduna izan daiteke, proiektua garatzeko eta ezartzeko orduan.



HAZINNOVA ekimenaren bigarren urte honetan, Cámarabilbaok tutoretzapean izan dituen enpresen kopurua **10 enpresakoa** izan da, eta **17 proiektu berritzaile** egin dituzte **guztira**.

Horrez gain, 2021eko azaroaren 11n, Cámarabilbaon egin zen Hazinnovaren aurreko edizioan parte hartu zuten **ETEak egiaztatzeko jardunaldietako bat.**



Jardunaldi horretan, **Bilboko** eta Bilbo Handiko eskualdeko zati bateko **38 ETEri** eman zitzaien egiaztagiria, zenbait neurri ezarri zituztelako euren produktuetan edo negozio-prozesuetan berrikuntza sustatzeko (fabrikazioa, logistika, merkaturaketa eta administrazioa zein finantzak) eta, horrela, merkatuan duten posizioa hobetu zuten emaitzak lortu zituztelako.



## 2021EKO INNOCÁMARAS

Programa hau lagungarria da ETE-en, mikroenpresen eta autonomoen lehiakortasuna hobetzeko orduan, berrikuntza ezartzen dutelako euren enpresa-prozesuetan.

Ekimen honek enpresetan berrikuntzaren kultura ezartzea sustatzen du, garapenari zein berrikuntzari begira duten ahalmena suspertzeko eta, horrela, hazkuntza ekonomiko eutsia lortzeko.

Programak bi fase bereizgarri ditu.

### DIAGNOSTIKOAREN ETA AHOLKULARITZAREN FASEA

- Elkarrizketaren bidez, enpresak bere ingurune ekonomikoan eta merkatu-ingurunean zer lehiakortasun-maila duen jakitea da helburua, baita enpresaren lehiakortasunaren funtsezko faktoreei buruzko gomendio-lerroak eskaintzea ere, bertan jarduketa berritzaileak garatu ahal izateko.

- **10 diagnostiko**

### EZARPENAREN FASEA

- Fase honetan, diagnostikoaren eta aholkularitzaren fasean berrikuntzaren arloan zehaztutako gomendioak eta inbertsio-alternatibak jartzen dira abian.

- 7 ETEk diagnostikoaren fasean zehaztutako proiektu berritzaileak garatu zituzten.

## GISLUR: JARDUERA EKONOMIKORAKO GUNEAK

Plataformarako sarbidea hobea izan dadin, hasierako orria hobetu da. Horretarako, eremu ekonomikoei eta bertan finkatutako eragileei buruzko eduki interesgarriak jarri dira erabiltzaileen esku, goiburuan eta landutako gaien azalpenean egindako jarduketen bidez.




Bizkaiko erabilera ekonomikoko eremuei buruzko azterketaren laburpenaren arabera, enpresa-jarduerarako atondutako azalera bizkaitarra 53,44 km2-koa da. Gehienak, gainera, lurzoru finkatuak direnez, %10 baino gehixeago dago hutsik jarduera berria ezartzeko.

Eskuragarri dauden 5 milioitik gora metro koadroak erabilera ekonomikorako sailkatutako lurzorua duten 93 udalerrietan kokatuta dauden 1.200 inguru lurzatitan daude banatuta.

Gislurrek higiezinetako kudeatzaile publiko eta pribatuen esku jartzen du haien eskaintzak argitaratzeko moduko ingurunea. Erabilgarritasun-erroldan, 2.000 inguru aipamen daude, bulegoak, pabilioiak eta lurzorua kontuan hartuta.

Lurzoru finkatuaren erradiografia egin da Gislurren dagoen enpresa-erroldaren ondorioz, eta, bertan, eremu horietako guztietako enpresa-sarearen ezaugarriak azaltzen dira. Honako hauxe da Bizkaiko Lurralde Historiko osorako irudia kategoriaka:

### KUDEATZAILEEK ARGITARATUTAKO ESKAINTZAK



## GISLUR: JARDUERA EKONOMIKORAKO GUNEAK

### JARDUERA NAGUSIA




### LANGILEEN KOP.




### FORMA JURIDIKOA




### ADINA



## PEPI – 2021EKO PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGURAKO PROGRAMA INTEGRALA

PEPI Espainiako Ganberak bultzatutako programa da, Europako Gizarte Funtsarekin (EGF) batera finantzatzen da eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioko Gazteen Bermerako Sistema Nazionalaren parte da.

Programa honek **16-29 urteko gazteei** eskaintzen die gure inguruko enpresek eskatutako lanbide-kualifikazioetara egokitutako berariazko prestakuntza-ekintzen multzoa.

Martxoan, prestakuntza-premiei buruzko azterketa egin zen Bizkaiko enpresen artean, prestakuntza-eskaintza gure inguruko enpresetako errealitatera egokitzeko asmoz.

2021. urtean, **33 gazteri** eman zitzaizkien arreta zein orientazioa, eta honako prestakuntza hauek antolatu ziren haientzat:

2

Ikastaroak: Gaitasun Digitalak eta Enplegagarritasuna eta Trebetasun Sozialak

65 ordu/prestakuntza

2

Ikastaroak: Logistikako eta Biltegiko Gaitasun Aurreratuak

150 ordu/prestakuntza

# EKINTZA SEKTORIALA

## BERRIZ ENPRESA

2021ean, enpresak eskualdatzen eta enpleguari eusten laguntzen duen Berriz Enpresa programak **Bizkaiko 16 negozio** eskualdatzeko laguntza eman zuen, guztira saltzaileen egokitasunari buruzko 54 azterketa egin ostean. Haietatik, **32 negozio** sartu ziren programan euren bideragarritasunagatik.

